

5. koadernoak:
Pazko jaialdia
(apirilak 24 – ekainak 12)

1. Bizitza: guztiaren iturri

Pazko garaia hasi berri dugu. Berrogeita hamar eguneko Pazko jaialdian, aukera ezin hobea izango duzu liturgia-urteko jai nagusia den Pazko-Misterioan sartzeko, zure eliz elkartean Jaun Piztuaren misterioaz disfrutatzen eta zure Bera modu oso berezian elkar aurkitzeko.

Garizuman, *Quid Prodest* Izpirituak bultzatuta, ibilaldia egin zenuen basamortuan barrena, eta, orain, Izpiritu horrek berak, agindutako lurraldea erakutsi nahi dizu. Aintzaren argibidean ibiltzeko unea da, krisietatik eta tentaldietatik haratago. "Piztuera eta bizia", horiek dira Kristo eguneroko bizimoduan sentitzeko erabiliko ditugun jarraibideak. Heriotza eta bizia, biak aurkituko dituzu bidegurutzean, eta derrigorrez hasi beharko zara aukeratzen, bidea heriotzaren truk ala bidea bizi betearen truk, bata edo bestea.

Espiritu Santuak –lehenengo Mistagogoak– misterioz misterio eramango zaitu, izatez Piztua ezagutzera emango dizu "ogia zatitzean", Hitz egiten dizunean, "itsaso zabalean arraun egitera" gonbidatzen zaituenean. Espiritu Santuak bizitzaren gauza eta detaile txikiak eskaintzen duten Opari aparta dastaraziko dizu, zu misterioaren beraren baitan partaide egin arte: Mendekosteko gailur.

Pazko garaian, kristau-elkarteak ospatzen duen egun bakoitzean, ordu bakoitzean, Jainko Espirituz Piztuarekin bat egiteko aukera izango duzu. Ahalegin horretan ezin zara alfertu. Egutero, eta egunean behin baino gehiagotan, Jainkoa gurekin dago. Zain daukazu berekin noiz adiskidetu zaren, bere mezua noiz entzungo duzun unean zain daukazu.

Eukaristia ospatuz hasten zara Haren presentzia zaintzen, Jainkoaren erakustaldi berezia non jazoko den ikusmiratzen, zure bihotzean hartzeko, zure fedea Harengan sendotzeko, zuri zuzentzen dizun deia onartzeko.

Eukaristia urte osoan da osagai berezia. Guretzat, misiolari klaretarrantzat, egutero da Eukaristia eta Liturgiaren Ordua (ikus Kristau-kanona 35) kristau-ospakizunean. Liturgia-urtean egiten den espiritualtasunerako proposapen bikainak gu bihotz-berritzeko gaitasuna dauka, elkarrekin edota bakarka bizi dugun gure bizimodua Hitzaren eraginkortasunari, eukaristiaren eta otoitzaren dohainei begira jarri bere osotasunean.

Misiolari zaitugun aldetik, berrogeita hamar eguneko Pazko jaialdia gogo bereziz ospatzeko konpromisoa hartu dezakezu, barrutik kanpora eta kanpotik barrura pozteko, zure eremu pertsonalean, zure elkartearen eremuan, zure eguneroko misiolari bizimoduan, Jainkoaren Piztuera eta haren presentzia ospatuz.

1. ariketa: Egunkari utopikoa

Eskerrak emateko otoitz garai honetan zehar, zure *Egunkari Utopikoa* idaztera gonbidatzen zaitugu.

Berrogeita hamar eguneko Pazko jaialdiaren datak seinalatuta izango dituen koadernotxo bat da. Saia zaituz esker oneko gertakarien bat edo aitortpenen bat bertan idazten, egutero. Mendekoste egunean edo zure kristau-elkarteak ospatuko duen topaketa horretan egin dezakezun oparirik ederrena izan daiteke koadernotxoa, zure esker oneko 50 esperientziak bertan bildu badituzu. Azkenean, Pazko jaialdia Esker oneko aldia dela ikasiko duzu, Jainkoaren errukia eguneroko bizitzan nahi eran eta modu miresgarriz aurkitzeko.

2. Gogoeta

“Hazia eta fruitua”

Pazko jaialdia ez da soilik Piztuera eguna modu bakarrean ospatzeko jaia. Pauloren hitzek Jesusen piztuera “hildakoen piztueran” kokatu behar dugula esaten digute (1 Kor, 15). Hau da, hildakoen piztuerak duen mundu mailako garrantziari hasiera Jesusen piztuerak ematen dio, “hasikina”, “hildakoen artean lehenbiziko seme”. Horregatik, Jesus piztu egiten denean, hilko garen gizaki guzti-guztiak biltzen gaituen espazioa sortzen da. Pazko egunetik aurrera hasten da Jainkoagan hil diren haiek Bizian sartzeko bidaia. Hura piztu egin da eta Harekin bere gorputz osoa, fedearen bitartez batu zaizkion den-denak.

Baina, bestalde, Jesus Piztuaren garrantziak sakabanaturik eta etsaiturik daudenak bildu edo elkartzen ditu, itxaropena galdu dutenak indarberritzen ditu, fedea itzultzen die zalantzatiei, emakume-dizipuluen eginkizuna sustatzen du.

Jesusek bazekien “fruitua” berpiztu egingo zela gari aleen eraginez, hau da, aniztasun bedeinkatua eta birbatua. Fedea gertaberritzen den denbora horretan, Simon Pedorena bezalako testigantza agurgarriak agertzen dira. Horregatik, Jesusek anaien fede-aitortza pizteko, kristau-taldearen arduradun izateko, lehenengo harria izateko lana ematen dio. Simon Pedro kristau-elkarteko bozeramaile bihurtuko da. Denon izenean hildakoen piztuera aldarrikatu eta berri ona zabaltzen du, eta horren hasieran Jesus da hasikina, hasiera. Eta, aldi berean, kristau-fedearen inguruan biltzeko deia egiten digu.

Guk, misiolari klaretarrok, gure fedea eta bokazioa elkarren zerbitzari bizi ditugu. Eliza gara gure eliz elkarte txikietan. Eta horietako bakoitzean, ebanjelizatzaileak garen aldetik, gure fedea bizi dugu partekatuz, aitortuz eta azalduz.

Gure elkarteak Eliz osoak bere fedea adierazteko duen lekua da. Gure elkartearen neurria handitu egiten da Eliz unibertsala bertan aditzera ematen denean, betiko –tradiziozkoa– eta nonahiko eliza. Gure Konstituzioen arabera, gure Artzainen eta Aita Santuaren *fortes adiutores* gara, eta denon arteko elkarbizitzak elkartasun-etxe eta -eskola bihurtzen dute gure elkarte txikia, kristau-elkarte osoaren ispilu. Beraz, gure zeregina Elizaren eta baimendutako bere ministerio guztien baitan, arretaz, lagunkoi, heldutasunez, sormenez eta eskuzabaltasunez aritzea da.

Pazko jaialdia ospatzen duguneko garai berezian, eliz elkarteak elkarrekin berreraikitza eta Eliz osoaren bat egitea ospatzera bildu gaitzake. Gari-lorearen sasoia da! Eta ale bakarrak hiltzeko prest egon beharko du, horrela emango baitu bere fruitu oparoa, horrela loratuko baita.

2. ariketa: Hazi ona

Pazko hasieran, ale edo hazi bat erein dezakezu. Horretarako, lekuri egokiena aukeratu, eta egunero zaindu. Pazko egun bakoitzean hazia pixkana-pixkana nola hazten doan ikusi, harekin identifikatu zaitez, eta haren antzera, zuk ere erantzun bihotz-berritzeko deia. Landare hori amaieran aurkez zenezake, zure eliz elkartearen bilkuran.

Quid Prodest “berrogeita hamarraldiaren” ospakizunean zehar

Zer ekarriko dizu...? Hori da, beste behin, egunen joanean zure bidean aurkituko duzun galdera. Eta berriro etorriko zaizu galdetzera Pazko jaiaren hurrengo berrogeita hamar eguneko ibilbide mistagogikoan ere. Zazpi igandez ospatuz eta zazpi igande eta aste horietako bakoitzean galdera berberaren alderdi ezberdinak erakutsiko dizkizute.

Elizak nahi du berak sentitzen duena zuk ere sentitzea, espiritualtasunaren etxea handikiro bizi dezazun. Kongregazioarekin bat etorri, eta guk proposatu bezala, *Quid Prodest* izenaz jada ezagutzen duzun gogoetarako bizipen hau egiaz bizi dezazula.

Pazko garaiak iraun bitartean, ohartu zaitetz alea loratu egiten dela hil eta piztu egiten den prozesu baten bitartez; horregatik, zalantzan jarri dezakezu honako hau:

Zertarako duzu alea lurrera bota eta haren baitan hiltzeari uko egiteak? Ez du fruiturik emango! Erabat antzu izango da! Eta zuri ere berdin, zer ekarriko dizu zure buruaz arduratzeak, zure burua gordetzeak, babesteak, erabilgaitz bihurtzeak? Egozentrismoa kartzela bihurtzen da, hilobi... eta, ondorioz, hazia ez da loratzen, hau da, ez da gizaki anitz bihurtzen.

“Pazko jaialdiaren ibilbidea, Hitzaren argitan”

1. Piztuera igandea: “Haiek hil zuten. Jainkoak piztu zituen. Guk berri ona iragartzen dugu”. Zein da mezu hori hartzeko zure jarrera?

Pazko garaia ez dago oraindik arras argitan. Harengan, nolabait esatearren, larunbat santuaren itzalak eta dudak ageri dira. Edo, beste modu batera esanda: denak ez dira segituan piztuera igandera igarotzen. Askotan, larunbataren eta igandearen anibalentzian bizi gara. Horrela esplikatzeko da erabat sinesten ez zuten dizipuluak egotea, eta dudaren eraginez, Hildakoen Piztuerak, Jesus semearengan gertatua, berekin ekartzen zuen “berria” bereganatzeko denbora behar izatea.

Larunbat santuaren eta piztuera igandearen artekoa joan-etorriko muga dela onartzea ongi dago, eta norabide bietan zeharkatzen da sarritan.

Halako bidegurutzetan, ez dira arraroak era honetako kezak:

Zer ekarriko dizu Jainkoaren eta bere elkartearen kontra borrokatzeak? Zertarako duzu heriotzaren kulturarekin elkarlanean aritzeak, horrek etorkizunik izan ez eta gainera garaitua izan behar baldin bada? Zer ekarriko dizu, gizaki zaren aldetik, Pazko argitik kanpo jarri eta ilunpe barne amaigabearen alde egiteak?

2. Bigarren igandea: “Zorionekoak ikusi gabe sinestu zutenek”.

Jainko Piztuaren gorpuko zauriak ukitzera gonbidatua izan ondoren, hari erakutsi zuk ere zure zauriak, zugar sendatzeko premian dagoen guzti-guztia, bakea indarrez kendu dizun iragan bateko traumak, baita zure beldurrak eta zure zalantzak ere. Tomas Apostoluari gertatu bezala, zuretzat ere sendatzeko edota zure fedea frogatzeko eta garbitzeko aukera izan daitezke bat-batean hasten zaizkizun kezka nagusiak. Horien artean garrantzitsuenak azpimarratuko ditugu:

- *Nire burua ez beste dena zalantzan jartzea*: gizakiok badugu geure burua guztiaren neurri gisa hartzeko joera gaiztoa. Gure “egoak” gure begirada guztiak bereganatzen dituenean, “areago” dagoena ikustea zaila egiten zaigu. Oso zaila egiten zaigu sinestea, hurkoari laguntzea, gurea ez den beste kausa batean buru-belarri aritzea.
- *Banako gisa jardutea eta agintzen nauen Hura ahaztea*: orduan “Ni arrantzara noa” esan eta Maisuak arrantza beste itsaso batzuetan eta “bere izenean” egitera bidali zigula ahazten baitugu, Simon Pedroren antzera. Gizakiok badugu eman zaigun zereginaz jabetu eta bakarkako lan bihurtzeko joera gaiztoa. Orduan gure misioa ez da “esana betetzea”, *di-misioa* baizik, banakako lana.
- *Mugatzen nauen edo zigortzen nauen edo berehalakoa ez den orori itsu-itsu ihes egiten ibiltzea*: lurrera erori, han hil eta antzaldaketaren zain geratzen den alea izateari uko egitea da. Batzuetan patxadatsuegiak edo burgesegiak gara. Beti ahalegin txikiena egiten saiatzen gara, eta askotan gure

baitako zauriak ukitu ere ez ditugu egin nahi. "Oraingo" une honetantxe bertan lortu nahi ditugu gauza guztiak... eta alde batera uzten dugu jarraibidea.

Jainko Piztuaren Espiritua gure mistagogo da sasoi honetan, eta bere Hitz ahaltsuaren bitartez larunbat santuko itzalak gairatzeko giltzak ematen dizkigu, igandeko argian behin betiko sartzeko. Jaunaren eguna jarraibidean ibili ahal izateko egun zoragarria da, transzendentziaren eguna, misioaren eta esanekotasunaren eguna, heriotzaren fruitu den biziaren eguna.

Pazko jaialdiko zure ibilbidean, *Quid Prodest* horren argitan, honako galdera hauek egin ditzakezu: Zer ekarriko dit jarrera "arrazionalista" hutsa izateak eta ukitzeak eta azalekoak baino ez diren gauzen aldeko egungo joera nagusiari jarraitzeak? Zer ekarriko dit etengabe guztiaren errezeloz bizitzeak, fedearen urratsetatik urrun harropuzturik egoteak? Zenbat ez ote dira onartu nahi ez dudan iragan bateko traumak eta zauriak ezkutatzeak jarrera hantusteak baino?

Mesfidatiak bere burua galtzen du, bere burua kondentzen du. Konfiantzak ematen digu zorientasuna, zorianbidea. Mesfidantza suntsizaile da. Konfiantza bizi duenak, ez du bere burua sekula engainatuko, izan ere *sinetsi egiten zaituenak, sortu egiten zaitu*.

3. Hirugarren igandea: "Aitor dezagun!"

Fedea ez da intuizio bat, ez beti. Fedea ez da une biribila, aitzitik, ikastaldi luzea da, aitorpen prozesu bat.

Jaunaren agerkundea ospatzen jarraitzen dugu. Orain baina "bere forma berrian", "eukaristiako espezien baitan" eta Hitzaren aldarrikapenean. Eukaristia ospatzen den bakoitzean ospatzen da Espirituan piztutako Jaunaren agerkundea. Ez espazioan, ez denboran, Pazkoak ez du mugarik.

Jaunaren izateak ez du ez-izatea ezeztatzen. Etengabe ageri da, zure eguneroko bizimoduan, zure elkartean eta historian, Espirituaren bitartekari-lanari esker. Fedeak esaten digu bizi dela, batez ere "Hitzean" eta Eukaristiako "espeziatan". Oraindik ere esan egiten digu, haren dizipuluei bezala: "zatozte jatera". Izate/ez-izate horrek "fedearen misterioa" gurtzera gonbidatzen gaitu, "Marana Tha" eskatzera, Jaunaren heriotza aldarrikatzera, Hura berriro itzuli arte.

Horregatik da Pazko garaia zure fedeari eta konfiantzari buruz galde eta galde aritzeko denbora:

Zer ekarriko dizu dena segituan ikusteko premia harropuztak eta aitorpenaren prozesu motel eta mingarriari uko egiteak? Zenbatetan etsitzen zara, ezinegonak etorkizunerako bide misteriotsuak tratatzen dizkizunean?

4. Laugarren igandea: "Artzain On Ederraren ikono biziak"

Jesusek ez zigun umezurtz utzi, eta ez zuen ere artaldea bere albotik baztertu. Espirituaren eta haren bitartekariak diren anaien eta ahizpen bitartez bere "pastoral" ahalbideari jarraipena eman dio.

Gure kongregazioaren, kristau-elkarteen eta gutako bakoitzaren erantzukizunaren bidez, Jesusen Espirituak, Artzain On Ederrak, bere misio lanean jarraitzen du. Kongregazioaren aldetik, Klareten esperientzia gureganatu nahi dugu: gure Aitaren eta gure Amaren Espirituak gudan eta gure bitartez bizi dira. Horren jakitun izateak gure onura edo sonaren alde ariztetik aske uzten

gaitu. Bere izatea Jesusen Espirituarengan hartzen duena Jainkoaren seme da, Jainkoaren misiolari.

Kongregazioan Espirituaren obran ari gara lanean. Agindutako ministerioaren izaera ministerial eta karismatikoari heltzen diogu, edota senitarte laiko karismatikoari. Klaretarren ordenako ministroengan (presbiteroak izan edo diakonoak izan) agerikoak dira Elizaren sustrai apostolikoak, eta haiengan berritzen dira Jesusen jokabidea eta asmoak. Guga babesten dira bere eliza zaintzen duen Artzain On Ederraren gardentasuna eta egitekoa. Espirituaren ministroak dira ere “Hura nondik datorren eta nora doan ez dakiten” Anaiak eta Ikasleak, baina, hala ere, hilak Berpiztearen indarra sinesgarri egin eta biziaren betetasunera garamatzana.

Pazko jaialdia gure misioan behar diren jarrerak sakontzen laguntzeko eta agintzen gaituen Haren borondatea aurkitzeko denbora da. Hauek galdetu ditzakezu:

Zer ekarriko dizu nabarmenkeri nahiak jota zure beso luzea erakutsiz misioan ibiltzeak, helburu nagusia Artzain On Ederraren argia ez bada? Zertarako duzu agintzen zaituenaren lekua hartzeak eta Harengan espiritualki urrutiratzeak?

3. ariketa:

“Hitzaren ministerioan laguntzaile porrokatuak izateko” (Kristau-kanona 6) agintzen gaituen Kongregazioari (eta haren barruko zure elkarteari) azterketa

- Kongregazioa betetzen ari al da Espirituak agintzen diona? Lurra bihotz-berritzen duen Espirituaren jardueri buruzko tirabirak al daude gure artean? Gure ikuspuntua indarrez behartzen saiatzen gara ala Espirituari bere agindua Jainkoaren borondatea egokitzen uzten diogu?
- Guk geuk nola ulertzen dugu misioa, “lan” edo “enplegu” huts bailitzan ala esperientzia mistiko bat da, kalkulu ororen gainera langile eta zerbitzari egiten gaituena?
- Zer da gure baitan nabariago, misiorako zerbitzu jarrera ala gure aurreikuspenetan sartzen ez den guztiaren aurkako setakeria?
- Utziko al digu Pazko jaialdiaren esperientziak Jerusalem berrir sartzen, Emausko dizipuluei gertatu zitzaizen bezala, han gure eginkizunean berrir hasi eta lanean jarraitzeko?
- Zein da Espirituaren misioarengan nire parte hartzearen eraketa karismatiko eta ministeriala? Berririk eskaintzen al dut, Elizak edota Kongregazioak nigandik espero duten hori erakusten al dut, gaurko mundua hobetzeko lanean laguntzen ari al naiz?

5. Bosgarren igandea: Jesus bidea, egia eta bizia

Pazko jaialdian Jesusen dizipulu gisa jarduten baduzu, Haren fruituaren ondorio izango dira zure pentsamenduak, erabakiak eta ekintzak.

Pazko jaialdian, *Quid Prodest* delakoa gogoetagarriago bihurtzen da, Tomasen, Feliperen eta bizia benaz hartu nahi duten beste hainbaten antzera, galdera oinarrizko hau egiten duzunean: “Nola ezagutuko dut bidea?” (Jn 14,5).

Gizakiarentzat erronka handiena bizitzaren bidea ibiltzea izan da eta izango da, eta, beharbada, poztasun gehien eragin dezakeena zera da: norberak bere bide zuzena aurkitzeko zori ona izatea.

“Ni naiz bidea, egia, eta bizia” dio Jesusek. Dizipuluak beren Maisuaren hitzak, zeinuak eta bizimodua ondo ulertu badute, ez dute zertan beldur izan, nahikoa baita bere horren urrats bakoitzean jarraitzea, nahikoa baita Maisuaren antzera nork beretik ematea. Hori nahikoa baino gehiago litzateke.

Hala ere, gizaki bakoitzaren historiak agerian uzten ditu Jesusek aukeratu zuen *bidea* aukeratzeko orduan traba diren gabeziak. Bere proposamena harrigarri gertatzen da eta, ziurrenik, beldurra sartzen digu, errutinaren bideak edota jadanik ezagunak zaizkigun bideak jarraitu nahiak sortzen digun beldurra.

Denok jakin beharra daukagu, lehenengo testiguen bezala, Jauna ez dagoela hilen artean, eta gaur ere itxaropenez bizi gintezkeela: “Ez larritu; badut zuretzat ere toki bat; ni nagoen tokian egongo zara zu ere”.

Baina, non dago Jesus? Munduan duen zeregina agerian uzten duen hasieratik bertatik, Jesusek berak esaten digu: “bere Aitaren gauzetan” (Lk 2,49). Hortxe nahi zaitu: maitasunaren eta biziaren eremuan, besteren zerbitzuan jartze eta bestearenganako zubi izate horretan. Bizitzeko moduko etxe asko daude hor (cf. Jn 14,2). Hortxe daukazu Berak zuretzat prestatu duen tokia. Hortxe, eta hor baino ezin zaio “Aita” esan Jainkoari.

Galdetu zeure buruari: Zer ekarriko dizu “puri-purian dagoen kulturak” eskatzen didanari jarraitzeak, azkenean “nire Aitaren” eremuaren barruan –maitasuna, dena eman, neurrigabeko bizia eta alaitasunez gozatzea– egon ezin badut?

6. Seigarren igandea: “Ebanjeliozko jokabide handien zabaltze eta besterentzea”.

Indar berri bat dago Ebanjelioaren aldarrikapenaren baitan, Jesusek orain guri ematen diguna. Goitik behera datorren indarra da, “Jesusen irakaspenak eta hitzak gogoraraziko dizkigun” Espiritu Parakletoaren presentzia eta promesa. Mezuak eta Hitzak guk geuk baino indar gehiago badutela sinisteak Harengan hautatu gaituen Bizi berriaren ministro bihurtzen gaitu.

Jesus berpiztu eta Aitaren eskuin aldean jartzen den garai hau “*missio Dei*” delakoaren edo misioaren fase berri eta erabakitzaile bat hartzeko prest dago.

Horregatik, badaukazu galdera hau egitea: zer ekarriko dit gauzak gehiegi planifikatzen ibiltzeak edo nire dohainetaz lar fidatzeak, agintzen nauen Harengan bete-betean ez banaiz?

Ebanjelioak Espiritu Santuan duen konfiantza maitasunez sustraitu eta eramaten du, eta Espiritu Santuak haren usteona hedatzen du.

7. Igokunde igandea: “Joan nadila komeni zaizue”

“Joan nadila komeni zaizue”. Jesusek tokia egiten dio Espirituari. Hark jakin badaki noiz iritsi den Aitak agindu zion misioaren amaiera. Eta badaki, jakin ere, nola berri bere bizia. Abba deituta igo da, hau da, Zerura. Handik iragartzen dute Espiritu Santuaren etorrera.

Jaunaren izateak ez du ez-izatea ezeztatzen. Zerutan dagoen Jauna –“zerura igo eta Aitaren eskuin aldean jarriko dago”– munduaren bazter orotan ageri da, agertzen da bi edota hiru lagun Haren izenean biltzen diren hartan, bere Espirituaren indarrari esker. Izate/ez-izate horrek “fedearen misterioa” gurtzera gonbidatzen gaitu, “Marana Tha” eskatzera, Jaunaren heriotza aldarrikatzera, Hura berriro itzuli arte.

Eta berriz ere *Quid Prodest* galdera: zer ekarriko dizu zeregin bati, kargu bati, zerbitzu bati lotzeak, denboraz kanpo geratu bazara, dagoeneko ordutik kanpo bazaude? Munduan ezinbesteko zarela sinisteak Espiritu Santuaren etorrera eta bere berri ona oztopatu ditzake, den-dena zure subjektibotasunaren neurrira egokitzen duzunean.

8. Mendekoste Igandea: “Monopoliorik ez dago... Espiritua haragi ooren gainera isurtzen da!”

Jaun Piztuaren eta Abbaren dohain handia da: Promesa bete egiten da. Afaltegian isurtzen den Espirituaz beteta dago lurra. Espirituaren elkarreak aitortu egiten du, apal-apal eta pozkarioz.

Abbaren eraginez sorketa berria hasten deneko eguna da berpizkundea, neurri eta amaigabeko biziera berrira igarotzeko. Eta agindu diguten bezala: Abbak ezin du Espiriturik gabe sortu. Jesusek Espiritua ematen du, hilko bada. Jesusek Espiritua hartzen du, berpiztuko bada.

Jesus berpiztu eta Aitaren eskuin aldean jartzen den garai hau “missio Dei” edo misioaren fase berri eta erabakitzaile bat hartzeko prest dago. Jesus gurutzatuaren “consummatum est” deiturikoaren ondoren, jarraipena eman behar zitzaion “missio Dei” delakoari. Abbak eta Seme Berpiztuak zerutik bidaltzen digute Espiritua, eta isuri egiten da dizipuluen gainera.

Espirituak hasiera ematen dio misioaren garai berriari. Berak “memoria Jesu” oroigarriaren bitartez egiten du agindutakoa, eta egiten du Harekiko oso leial eta itxaropenaren berri ematera beldurrik gabe abiatzen den bakoitzarengan.

Espirituaren misioaren garaian gaude. Espirituak gurekin, Haren laguntzaile apalak izaki, lan egitearen poza ospatzen duen garaia da. Pazko berriaren esanahia zabaltzera bidaltzen gaitu, Jesusen oroipena egitera. Eta Espirituak, aukeraz eta eraginez, misio lana behar-beharrezkoa den tokietan egitera bidaltzen gaitu.

Agindutakoaren esaneko garenean, hori egiteko agindua izan denaren jarrera zintzoz aritzen garenean eta agintzen eta sagaratzen gaituen Haren nahiari lotzen bagatzaizkio, une horretan bizi dugu Pazko jaialdiaren indar harrigarria. Orduan hasten gara mundua berritzen duen Biziaren testigantza egiten eta haren mezua zabaltzen.

Gure kongregazioaren, kristau-elkarteen eta gutako bakoitzaren erantzukizunaren bidez, Jesusen Espirituak, Artzain On Ederrak, bere misio lanean jarraitzen du. Kongregazioaren aldetik, Klareten esperientzia gureganatu nahi dugu: gure Aitaren eta gure Amaren Espirituak gugan eta gure bitartez bizi dira. Horren jakitun izateak gure onura edo sonaren alde ariztetik aske uzten gaitu. Bere izatea Jesusen Espirituarengan hartzen duena Jainkoaren seme da, Jainkoaren misiolari.

Kongregazioan Espirituaren obran ari gara lanean. Agindutako ministerioaren izaera ministerial eta karismatikoari heltzen diogu, edota senitarte laiko karismatikoari. Klaretarren ordenako ministroengan (presbiteroak izan edo diakonoak izan) agerikoak dira Elizaren sustrai apostolikoak, eta haiengan berritzen dira Jesusen jokabidea eta asmoak. Gugan babesten dira bere eliza zaintzen duen Artzain On Ederraren gardentasuna eta egitekoa. Espirituaren ministroak dira ere “Hura nondik datorren eta nora doan ez dakiten” Anaiak eta Ikasleak, baina, hala ere, hilak Berpiztearen indarra sinesgarri egin eta biziaren betetasunera garamatzana.

Pazko jaialdia gure misioan behar diren jarrerak sakontzen laguntzeko eta agintzen gaituen Haren borondatea aurkitzeko denbora da.

Beste behin, Mendekosteko gailurra *Quid Prodest* bidezko galdera egitea izango da: Zertarako dituzu zientzia, lidergorako gaitasuna, arrakasta, Espirituarekin harreman sakonean bizi ezin badituzu? Espiritua maitasuna bada, zertarako dituzu aparteko karismak, maitasunik ez baduzu?

4. ariketa: Pazko liturgiaren bidea

- Zein da zure sentiera Pazko-garaiak ospatzen duen liturgiaren aurrean? Zeri begiratzen diozu, kantitateari ala kalitateari?
- Nola bizi duzue zuk eta elkarteko zure anaikideek garai hau, Pazko-*kairos* benetako baten gisa, ala ez?
- Jaun Piztua hartzeko prest zaude ala Hura ezereztan saiatzen zara? Haren mezu eta agerpena lasai itzaroteko prest zaude ala zure baldintzetara egokitu nahi duzu?
- Zure elkartean, Pazko giroa agerikoa da ala Grazia bildu nahi ez duen axolagabekeria laiko bat nabari zaio?
- Berpizkundearen zure aitormena, egiazkoa al da? Jaun BERPiztua zugar bizi dela aitortu dezakezu?

“Zatoz!” esaten duen Emazte-Eliza den Andre Mariarekin batera

Pazkoa, nagusiki, maiatzean, Andre Mariaren hilabetean ospatzen da. Eta Klaretek gogoratzen digu hauxe zela beretzat: “ama, amabitxi, maistra, zuzendari eta den-dena Jesusen atzetik” (Aut 5).

Pazko-garaia *Quid Prodest* mailan eta Andre Mariarekin lankide bizi ahal izateak, bakarrik ez zaudela erakutsiko dizu. Berak, Jainkoaren espirituaren aginduz historiaren garrantzi handiko bidegurutzetan jarritako emakume sinestuna izaki, honako hau galdetzen erakutsiko dizu: “Nola da hau posible?” (Lk 1, 29). Eta gizartearen menpe jarritako usadioekin ez konformatzen irakatsiko dizu, zure existentziak hartuko duen norabidean beldurrez ez ibiltzeko eta erabaki zuzenak hartzeko.

Pazkoak dirauen artean, hura agurtu Elizaren tradizioak kantatu ohi dionarekin: *Regina Coeli, laetare...* Poztu zaitetz Maria, Zuk zeuk “Magnificat” otoitzean aldarrikatu zenuen bezala (Lk 1,47). Poztu zaitetz, negarren ondoren, barrez ere dakienaren zure zorionarekin. Poztu zaitetz, handia baita zure atsedena (Mt 5,4; Lk 6,21) eta Biziaren garaipenak eman diezazukeena baino ongi handiagorik ez baitago: horra zure erraietako semea. Poztu zaitetz, “Fiat” zureak merezi izan duelako, zure ametsek, zure nekeek eta zure sufrimenduek, Jainkoaren miseriakorian badute erantzuna.

Harekin, zuk ere, egiazko Pazko bidean errones, deitu Emazte-Elizarekin eta Espirituarekin batera: “Zatoz!”. Eta horretantxe zure gogapenak, zure bilakuntzak, zure “Quid Prodest” den-denak aurkituko dute zentzu bete. Bere konfiantza zure bidegurutze guztietan eta beti-beti uztartu, eta bere erantzuna jasoko duzu: “*Bai, berehala naiz zurekin. Amen*” (Ap 22,17.20).

5. ariketa: *Quid Prodest*eko Andre Maria

Gutxienez maiatzean, Arrosarioa errezatu bitartean, zure bizitzaren bidegurutzetan Andre Mariari honako hau eskatzeak zer esan nahi duen hausnartu: “*Erregutu ezazu gu bekatarien alde orain eta gure heriotzako orduan!*”.

3. Elkartearen batasunerako

1. Mendekoste jaia amaitu aurreko edo hurrengo egunetan izan daiteke. Bakoitzak Araudi espirituala, Biblia, bere “Egunkari utopikoa” eta Pazko jaialdian landatu eta zaindu duen landarea eramango ditu.
2. Otoitz giro aproposa sortu, Espiritua agertu berriaren pozak eman ohi duena. Bilgunea ongi apaindu eta ikurrak zaindu: irudiak, argizariak, koloreak. Andre Mariaren irudi bat jarri.

3. **ESPIRITU SANTUARI LAGUNTZA ESKE** hasi gintezke.

Ohargilea: Gure ospakizunari hasiera emango diogu bihotzez eskatuz. Andre Mariaren ondora bildurik, Espiritu Santuaren dohaina izan dezagula eskatzen dugu, eta isuri ditzala gure baitan bere indarra eta bakea.

- Bidal ezazu, Jauna, gure kateak askatu dituen zure Espiritua.
- Bidal ezazu, Jauna, gure hesiak botako dituen zure Espiritua.
- Bidal ezazu, Jauna, gure aurreiritziak baztertuko dituen zure Espiritua.

Kantu saioa: *Espiritu Santua, zatoz, zatoz* (hiru bider), *Jesusen izenenean* (edo beste kanta egokiren bat abes daiteke).

- Bidal ezazu, Jauna, gure zauriak sendatuko dituen zure Espiritua.
- Bidal ezazu, Jauna, lagun hurkoarengana eramango gaituen zure Espiritua.
- Bidal ezazu, Jauna, edonorengan gure anai-arreba ikusten lagunduko digun zure Espiritua.

Kantu saioa: (leloa)

- Bidal ezazu, Jauna, bakearen aldeko zure Espiritua.
- Bidal ezazu, Jauna, elkarbizitzarako zure Espiritua.
- Bidal ezazu, Jauna, elkartasunerako zure Espiritua.

Kantu saioa: (leloa)

- Bidal ezazu, Jauna, elkar barkatzeko eta egiatzko elkarrizketan bizitzeko zure Espiritua.
- Bidal ezazu, Jauna, gure zorrak barkatzeko zure Espiritua.
- Bidal ezazu, Jauna, gerrak, arrazismoa, eta gizakien artean dauden aldeak gainditzeko zure Espiritua.

Kantu saioa: (leloa)

Aipatutako eskaera horien ordeztuz, “Veni Sancte Spiritus” (Araudi Espirituala, 143. zenb.) sekuentzia osoa edo beste kanta egokiren bat abes daiteke.

Eskaerei amaiera, “Araudi Espiritualeko CMF” otoitz batekin eman diezaiekegu, esaterako: 10, 37 edo 38 zenb.

4. Ohargileak, honako argibide nagusi hauek hartuko ditu kontuan, bertan direnak motibatuzko:

- Espiritu Santua Elizan, Kongregazioan eta gure elkartean agertzen dela ospatzen dugu era berezian.
- Munduaren hasieratik bere Espiritua bazebilen ur-gainean (Gn 1,2).
- Jesusek gurutzeko heriotzatik elkarre leialaren gainera (Jn 19, 30b) eta ezkutatuta zeuden dizipuluen gainera isuri zuen Espiritua da, berpiztu zen gauean (Jn 20, 22).
- Elkarre bihotz-berritzen duen Espiritua da eta Mendekosteko jaiegunetan haren fedearen eta itxaropenaren testigantza ematera datorrena (Eginak 2,1).
- San Antonio M^a Claretin gogoan piztu zuen Espiritua da, eta bere maitasunaren indarrez (ura, sua, airea), burdinoletan burdina bezala gu moldeatu eta bizi berria zabaltzera bidaltzen gaituena (Cfr. Aut 342).

- Pazko jaialdiak iraun bitartean eta “gure eguneroko bizimoduan”, Jesus Berpiztuaren irudi den “Gizaki berria” gure baitan landu duen Espiritua da.
5. Jn 20,19-29 edota Eginak 2,1-13 ere irakurri egin ohi dira.
 6. Isilune labur bat egingo da. Espiritu Santuaren presentzia gogoratzeko, musika ere jarri daiteke hala nahi izanez gero, baina urrunean bezala.
 7. Ondoren, une aiposean, “Egunkari utopikoan” aurrez idatzi den Pazko jaialdiari buruzko esperientziaren bat irakurtzeko eskatuko zaio partaide bakoitzari. Irakurri den Bibliako testuarekin, faszikuluaren aholkuz egindako ariketaren batekin edota gogoetak eragin duen galderaren batekin harremana izan dezake. Irakurketaren ondoren, bakoitzak “Egunkari utopikoa” hartu eta aldare azpian edota aretoko tokien artean garrantzitsuenean ipiniko du (bukaturakoan, bakoitzak berea jaso dezala).
 8. Elkarrekin aritzeko tartearen ondoren, beste kanta egokiren bat abes daiteke.
 9. Landatutako hazia, bakoitzak berea ekarri baldin badu, aldare aurrean edo Jaunaren irudiren baten aurrean aurkeztu dezake, eta, aldi berean, barkamen-eskaria edo bitartekari-lana eskatu egin dezake, elkarteko “eguneroko bizimoduaren sutegiak” emandako fruitu ederrenaren alde.
 10. Andre Mariaren laguntza eskatzen da (adibidez, “Agur, Maria!” baten indarrez) eta “Regina Coeli” edota beste kanta egokiren bat abestu daiteke, bukatzeko.

5. Gomendagarriak "Lectio divina" egunero egiteko

<p>Igandez Apirilak 24</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eginak 10, 34-43 • Salmoa 117 • Kol 3,1-4; edo • 1Kor 5,6b-8 • Jn 20, 1-9 	<p>Pazko Igandea. <i>Asteko lehenbiziko eguna.</i></p>	<p>Existenziaren bidegurutzean, kristau-bidea egiteko beste aukera bat ematen digu Jainkoak. Ikasi heriotzaren seinalean biziaren gailurra aurkitzen.</p> <p>Hilobiaren hutsunea sentitu duen dizipulua, bihotz-bihotzetik Jauna maite duen dizipulua, biziaren betetasunera bihotz-berritzen da.</p>
<p>Astelehenez Apirilak 25</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eginak 2,14-22 • Salmoa 22 • Mt 28,8-15 	<p>Pazko Zortziurreneko astelehenez. <i>San Markos.</i> Ebanjelaria. <i>Andres Sola Aitaren martirioa, cmf eta lagunak.</i></p>	<p>Jesusen piztuerari buruzko testigantzarik hoberena hauxe izaten da: bete-betea maitatu beharraren esperientzia. Horrela ulertutako maitasunak bakarrik sendatuko du iltzatu-etsitu baten bideari jarraitzen dionaren beldurra, eta horren berri emango du eta erakutsitakoari jarraituko dio.</p>
<p>Asteartez Apirilak 26</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 2,36-41 • Sal 32 • Jn 20,11-18 	<p>Pazko Zortziurreneko asteartez.</p>	<p>Maria Magdalenak emazte-elkartea ordezkutzen du, Senarra laguntzen baitu zain duen Aitarengana igotzeko. Ezkonitzak eginda daude, baina behin betiko bategitea Jesusen bidea ibiltzen duzunean gertatuko da: Erreinuaren berri ona zabaldu eta haren kausa sufritu beharra.</p>
<p>Asteazkenez Apirilak 27</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 3, 1-10 • Sal 104 • Lk 24,13-35 	<p>Pazko Zortziurreneko asteazkenez.</p>	<p>Emausek Hitzaren eta Eukaristiaren mahaira deituak izan diren dizipuluen hizketaldia bideratzen du. Han, gogoak berri eta bihotzak pizten dira. Ogiaren zatiketa, fedearen eta biziaren arteko bategite horren laburpen biribila da.</p>
<p>Ostegunez Apirilak 28</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 3, 11-26 • Sal 8 • Lk 24, 35-48 	<p>Pazko Zortziurreneko ostegunez.</p>	<p>Berpizte aroan dagoen elkarreak bere onena eman nahi du eskuzabalez: bekatuen eraldatzea eta barkamena. Barrutik eraldatua, orduan jaiotzen da zuga gizaki berri eta bakezkoa.</p>
<p>Ostiralez Apirilak 29</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 4,1-12 • Sal 117 • Jn 21, 1-14 	<p>Pazko Zortziurreneko ostiralez. <i>Sienako Santa Katalina.</i> Patroikide.</p>	<p>Jesusen Hitzaren esanera zabiltzan heinean, erabakiak hartuko dituzu zure bizitzan. Harena maitasunezko mezua da, ausardiaz eta dena emanda jokatzeko eskatzen duena. Hark konfiantzaz azaltzen dizu aukera erabakitzailea: Eukaristiak guga berritzen dituen haren misioaren testigantza eman eta Hura egiaz gogoratu.</p>
<p>Larunbatez Apirilak 30</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 4,13-21 • Sal 117 • Mk 16, 9-15 	<p>Pazko Zortziurreneko larunbatez.</p>	<p>Sinesgabatasun sakonak eta zalantzak, hausnarketaren bidegurutzetan ("Quid Prodest") oso ohikoak izanik, presente daude berpiztuaren dizipuluek ibili behar duten fedezko bidean. Eta hala ere, Zuga jartzen du Hark bere konfiantza osoa eta biziaren berri onaren testigantza ematera bidaltzen zaitu.</p>
<p>Igandez Maiatzak 1</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 2,42-47 • Sal 117 • 1Pe 1,3-9 • Jn 20,19-31 	<p>Pazko Zortziurreneko igandez.</p>	<p>Jesusen hutsuneak dizipuluaren bizia ilundu egiten du. "Gaua" da, "itxita daude ateak", eta Ebanjelioaren testigantza emateko beldur gara. Zalantzak hartzen zaituen une horretan, Berak baino ez dizu emango, graziaren indarrez, bakeari eta alaitasunari eusteko arrazoia.</p>
<p>Astelehenez Maiatzak 2</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 4,23-31 • Sal 2 • Jn 3,1-8 	<p>Pazko II. Asteko astelehenez. <i>S. Atanasio.</i></p>	<p>"Bizi berrira birstortu", hori da Jesusen Pazko zeregina. Noraino behar duzu zure fedean, zure maitasunean, zure itxaropenean, zure jarduteko gaitasunean, zure izaera misiolariari traba egiten dion horretan guztian berpiztu zaitzan?</p>

Asteartez Maiatzak 3	<ul style="list-style-type: none"> • 1Kor 15,1-8 • Sal 18 • Jn 14,6-14 	Pazko II. Asteko asteartez. <i>Done Felipe eta</i> <i>Done Jakue.</i> Patroikideak.	Egiaz al da Jesus zuretzako <i>bidea, egia eta bizia</i> ? Sendo uste al duzu Aitarengana iristeko, bere bideari jarraitu behar diozula eta maitasunezko ekintzen artean bizi behar zarela?
Asteazkenez Maiatzak 4	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 5,17-26 • Sal 33 • Jn 3,16-21 	Pazko II. Asteko asteazkenez.	Jainkoaren oparirik handiena, haren eskuetatik bihotz garbi bidali zigun Seme bakar Jesus, munduagatik baldintzarik gabeko maitasun osoaren froga baino ez da. Munduak eta zuk haren baitan, biziaren betetasuna eta salbamena lortu behar dituzue.
Ostegunez Maiatzak 5	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 5,27-33 • Sal 33 • Jn 3,31-36 	Pazko II. Asteko ostegunez.	Jainkoak bidalitako Jesus –eta zu Harekin–, Jainkoaren Hitzaz mintzo da. Egiak, maitasunak eta itxaropenak oihartzuna dute bere bihotzaren barnean, salbamena izan dadin gizaki guztiontzat. Zertarako duzu Ebanjelioari uko egitea, biziaren betetasunak eskaini behar dizuna galtzen baduzu?
Ostiralez Maiatzak 6	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 5,34-42 • Sal 26 • Jn 6,1-15 	Pazko II. Asteko ostiralez.	Jesusek Eukaristian zuretzako zatikatzen duen ogia –bere Hitz eta gorputz–, zure infinitu gosea asetzeko egiten dizun opari eskuzabala izaten jarraitzen du. Gauza izango al zara “zure ogiak eta zure arrainak” ekarri eta biziaren mirariari etengabeko jarraipena emateko?
Larunbatez Maiatzak 7	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 6,1-7 • Sal 32 • Jn 6,16-21 	Pazko II. Asteko larunbatez. <i>Done Antonio Maria</i> <i>Clareten</i> kanonizazioa.	<i>“Ni naiz, ez izan beldurrik”</i> . Maisuak bidaiaren kontrako beldurrak gainditzeko lanean lagundu nahi dizu. Zertarako ekaitzen kontra bakar-bakarrik borrokatu, bakea eta konfiantza emango dizkizunarekin egoteko aukera galtzen baduzu?
Igandez Maiatzak 8	<ul style="list-style-type: none"> • Eginak 2,14.22-33 • Salmo 15 • 1Pedro 1,17-21 • Lukas 24,13-35 	Pazko III. Igandea.	Beldurrak, sinesgaiztasunak eta zalantza sistematikoak Jesus onartzeko, maitatzeko eta hari jarraitzeko eragozpenak jartzen dizkigute. Zertarako duzu zure baitan itxia misterioa ulertzeko era, bakearen eta pozaren bitartekaria “ukitzeko” aukera galtzen baduzu?
Astelehenez Maiatzak 9	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 6,8-15 • Sal 118 • Jn 6,22-29 	Pazko III. Asteko astelehenez.	Zein dira Jesusen bere bideari jarraitzeko zure arrazoiak? Zer ekarriko dizu Maisuaren bila komenientziaz ibiltzeak, behin betirako den biziaren balio nagusiek eraginik gabe utziko zaituztenean?
Asteartez Maiatzak 10	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 7,51-8,1a • Sal 30 • Jn 6,30-35 	Pazko III. Asteko asteartez.	Jauna! Ase gaitzazu beti zeruko ogiaz: Zu zeu zarelako ogi horretan, Erreinuaren eta haren zulentasunaren testigantza. Zu zara maitasunaren eta zoriontasunaren gure gose eta egarria asetzen dituen.
Asteazkenez Maiatzak 11	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 8, 1b-8 • Sal 65 • Jn 6,35-40 	Pazko III. Asteko asteazkenez.	<i>“Nigana datorrena ez dut kanpora botako”</i> . Ba al da berri hoberik hori baino? Aitak bere Semea bidaltzen digu, <i>behin betirako bizia</i> izango dugula guri ziurtatzeko. Existentiaren bidegurutzetan, hitz horien mezu kontsolagarria bizi.
Ostegunez Maiatzak 12	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 8,26-40 • Sal 65 • Jn 6,44-51 	Pazko III. Asteko ostegunez.	Zure gorabeherak eta giza ahultasunak alferrik eramango zaituzte Jesusekin bat egitera, ez bada errukiz onartzen duzula Aitaren deia. Zure eskuetan uzten dizu erantzuteko erabakia.
Ostirala Maiatzak 13	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 9,1-20 • Sal 116 • Jn 6,52-59 	Pazko III. Asteko ostiralez. <i>Clotet A. J.aren</i> <i>Dohain Heroikoen</i> <i>Aitorpena.</i>	Zer ekarriko dizu zure buruak, tradizioaren eta gizakien legeen indarrez, salbamena jasoko duela harropuzkeriaz sinesteak, Jesusekin eta bere elkartearen gorputzarekin zure bat egitea baztertzan baduzu? Kristorengatik, Kristorekin eta Kristorengan baino ez dituzu berpiztea eta bizia aurkituko. Biziaren ogiarengan baino ez duzu zure galderen erantzuna aurkituko.

Larunbata Maiatzak 14	<ul style="list-style-type: none"> Eginak 1,15-17.20-26 Salmo 112 Jn 15,9-17 	Pazko III. Asteo larunbatez. <i>Done Matias, Apostolua.</i> <i>Avellana A. M.ren heriotza, cmf.</i>	Aitak maitasuna eta maitasunaren indarra eskaintzen dizkizu Jesusen bitartez. "Maitasunean tente iraun", hori izango da dizipulu-lagunaren lana, hark emandako aginduz. Zer ekarriko dizu beste interes batzuen "seme-alaba" bihurtzeak, alaitasunak bideratzen duen adiskidetasun mina galtzen baduzu?
Igandez Maiatzak 15	<ul style="list-style-type: none"> Eginak 2,14a.36-41 1Pedro 2,20b-25 Salmo 22 Jn 10,1-10 	Pazko IV. Igandea	"Ni naiz Artzain beti ona... Ni naiz atea... bizi izan dezaten etorri naiz", zer ekarriko dizu ahots nahasgarriak aintzat hartzeak, biziaren betetasunetik urruntzen baldin bazaituzte?
Astelehenez Maiatzak 16	<ul style="list-style-type: none"> Eg 11,1-18 Sal 41 Jn 10,11-18 	Pazko IV. Astea astelehenez.	Artzain onak bere burua ematen du ardiaren alde. Morroi dabilenaren pentsaera ez baitu berea, ezta lansaria baino axola ez zaion jabe hutsarena ere. Ohartzen al zara Artzain onak bere burua ematen duela zure alde? Haren antzeko bidetik al doa agindu zaizun misioa?
Asteartez Maiatzak 17	<ul style="list-style-type: none"> Eg 11,19-26 Sal 86 Jn 10,22-30 	Pazko IV. Astea asteartez.	Zalantzak beldurtuko zaitu bidegurutzetan: Fededun izatea, egia da ala irudipen hutsa? Zer ekarriko dizu muturreko arrazionalista izatea, bakea eta konfiantza galtzen badituzu, bizitzako gauza txikietan jartzen duen bere mezua entzuteko gauza ez bazara?
Asteazkenez Maiatzak 18	<ul style="list-style-type: none"> Eg 12,24-13,5 Sal 66 Jn 12,44-50 	Pazko IV. Astea asteazkenez.	Jesusengan sinetsirik bazaude, argiak aitortzen zaitu. Pazko argiak zure bidearen argia aldarrikatzen du, behartsuen eta haurren aldekoa den Haren argi bera bihurtzeko; Harengan sendatzen gaitu, Harengan bedekatzeko gaitu eta Harengan kontsolatzen gaitu.
Ostegunez Maiatzak 19	<ul style="list-style-type: none"> Eg 13,13-25 Sal 88 Jn 13,16-20 	Pazko IV. Astea ostegunez.	"Sutegian sartzeko" prest bazaude, gogoratu Jesusen dizipuluen elkartean inor ez dela inoren "Jaun", zerbitzari baizik. Zorionekoa zu, ulertu duzulako eta egiten ikasi duzulako. Zure jaunartzeak badu zentzua.
Ostiralez Maiatzak 20	<ul style="list-style-type: none"> Eg 13,26-33 Sal 2 Jn 14,1-6 	Pazko IV. Astea ostiralez.	<i>Nik prestatuko dizuet toki bat</i> , hala dio Jesusek. Aurretik, hala ere, Berak moldeatu beharko zaitu burdinoletan burdina bezala. Bidea, egia eta bizia da. Aitarengana daraman bidea.
Larunbatez Maiatzak 21	<ul style="list-style-type: none"> Eg 13,44-52 Sal 97 Jn 14,7-14 	Pazko IV. Astea larunbatez.	Jesus ezagutzea da Jainkoa ezagutzeko modurik aproposena. Zer ekarriko dizute giza zientzia eta teologia guztiek, Aitaren maitasunarenganako bidean jartzen zaituenarekin harreman bizia, maitasuneko eta hurbil-hurbilekoa galtzen baduzu?
Igandea Maiatzak 22	<ul style="list-style-type: none"> Eginak 6,1-7 Salmo 32 1Pedro 2,4-9 Jn 14,1-12 	Pazko V. Igandea <i>Vedrunako Done Joakina</i>	<i>Zure bihotza lasaitu dezakezu (...)</i> Ni naiz bidea, egia eta bizia. Jesusen bidetik saiatzen bazara: egiaz, zuzentasunez, adiskidetasun minez eta bentako maitasunez, beldurrik gabe eta haren Aitaren etxean biziko zara.
Astelehenez Maiatzak 23	<ul style="list-style-type: none"> Eg 14,5-18 Sal 113 Jn 14,21-26 	Pazko V. Astea astelehenez.	<i>Aitak bidaliko dizuen Laguntzaileak gogoraraziko dizue irakatsitako guztia.</i> Hura zure baitan ari da lanean bere hitza entzun eta bere agindua betetzen dituzunean: <i>elkar maitatu!</i>
Asteartez Maiatzak 24	<ul style="list-style-type: none"> Eg 14,19-28 Sal 144 Jn 14,27-31a 	Pazko V. Astea asteartez.	<i>Bakea, neure bakea ematen dizuet.</i> Hori da Jesusen opari eskaintzarik handiena. Zer ekarriko dizute neurrigabeko grinak eta botere, ondasun eta arrakasta planek, zuzentasunak eta bakeak indartzen dituen bakea galtzen baduzu?

Asteazkenez Maiatzak 25	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 15,1-6 • Sal 121 • Jn 15,1-8 	Pazko V. Astea asteazkenez.	Zer ekarriko dizu Jesusen jarraitzaile zarela pentsatzeak, Harekin bere Hitzean, bat egitean, otoitzean eta alaitasunez eta bihotz handiz bizitzea bultzatzen duen bere suan loturik ez bazaude?
Ostegunez Maiatzak 26	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 15,7-21 • Sal 95 • Jn 15,9-11 	Pazko V. Astea ostegunez. <i>S. Felipe Neri.</i>	<i>Zaudete nire maitasunean.</i> Semearengan, Jesusen dizipuluengan, Zugan eta bere elkarte osoarengan maite gaituen maitasunean. Aita eta Semea diren bezala maitatzea zorion betearen iturburu da.
Ostiralez Maiatzak 27	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 15,22-31 • Sal 56 • Jn 15,12-17 	Pazko V. Astea ostiralez.	Ezin maitatu edozein modutan, Jesusek gure artean egin bezala baizik. Har ezazu ez zure jabe, baizik eta zeure lagun hurkoa bezala. Bai, hala da, eskatzen dizun gauza bakarra hauxe da: bere aginduei jarraitzea eskatzen dizu, lotura guztietatik askatu eta biziera berria emango dizuten aginduak baitira.
Larunbatez Maiatzak 28	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 16,1-10 • Sal 99 • Jn 15,18-21 	Pazko V. Astea larunbatez.	Garbi oharatu zizkigun Jesusek Elizak egunotan bizi dituen "eragozpenak", boterearen, abantailen eta giza ospearen galtzeak. Bere proposamenaren kontrako mugimenduak asko diren honetan, prest al zaude oraindik ere hari jarraitzeko?
Igandez Maiatzak 29	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 8,5-8.14-17 • Sal 65 • 1Pedro 3,15-18 • Jn 14,15-21 	Pazko VI. Igandea.	<i>Ez zaituztet umezurtz utziko,...</i> <i>Nik Aitari eskatuko diot eta beste Laguntzaile bat emango dizue.</i> Zer ekartzen dizu uste osoa zugan edota giza ziurtasunetan jartzeak, Jainkoaren dohain handiak ematen duen bakea galtzen baduzu: Espiritua, bere indarra maitasunean?
Astelehenez Maiatzak 30	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 16,11-15 • Sal 149 • Jn 15,26-16,4a 	Pazko VI. Astea astelehenez.	Jesusek Espiritua agindu zigun. Espirituaren eginkizuna hau da: dizipulua gezurretik, kaskarkeriatik eta koldartasunetik babestea. Eskatu konfiantzaz laguntzeko. Zugana etengabe etortzen da. Argitasunez eta zelatan bizitzen lagunduko dizu.
Asteartez Maiatzak 31	<ul style="list-style-type: none"> • Sof 3,14-18; edota: Rm 12,9-16b • Lekzioartekoa: Is 12,2-6 • Lk 1,39-56 	Pazko VI. Astea asteartez. <i>Andre Maria Txit sailduaren ikustaldia.</i>	Haurdun dauden bi emakumeak historia berri bat "erditzeko" zorian daude. Berri on hori lau haizetara zabaldu eta "pozaren pozez" ospatu egin behar da. Jainkoak zu hartu zaitu begiko. Zugan ere "obra handiak" egiten jarraitu eta aldatu nahi du umilen zoria.
Asteazkenez Ekainak 1	<ul style="list-style-type: none"> • Egi 17,15.22-18,1 • Sal 148 • Jn 16,12-15 	Pazko VI. Astea asteazkenez. <i>Done Justino.</i>	Jesusek gauza asko ditu oraindik zuri esateko. Baina orain, Espirituaren argiaz argituko zaitu. Dei egiten al diozu? Nahi al duzu Haren laguntzarekin bizi? Zabaltzen al du zure oihartzunaren bidez Jesusen Hitza?
Ostegunez Ekainak 2	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 18,1-8 • Sal 97 • Jn 16,16-20 	Pazko VI. Astea ostegunez.	Bete-beteen tristezia bakarrik bizi duzunean, zalantzak zure usteonak itxura galduta uzten dituzunean, Jainkoa "ez dagoela" nabaritzen duzunean, Jesusen Espirituaz fida zaituz. Tristezia bihurtuko zaizu poza.
Ostiralez Ekainak 3	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 18,9-18 • Sal 46 • Jn 16,20-23a 	Pazko VI. Astea ostiralez. <i>San Maximiliano. San Carlos Lwanga eta lagun martiriak.</i>	Zure misiolari bokazioan nabari ditzakezun sufrimen eta trabak ez dute ukatzen Jesusek zuretzat duen maitasuna. Kristok ez zaitu minetik askatzen, baizik eta minetan eta minaren bidez ernaltzen da. Emakume haurdunak aski ongi daki hori zer den. Jainkoaren Erreinua erditzeak bere gain hartzen du sufrimen gurutzia.
Larunbatez Ekainak 4	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 18,23-28 • Sal 46 • Jn 16,23b-28 	Pazko VI. Astea larunbatez.	Aitari Jesusen izenean eta Harekin bate eginda otoitz egiten ikasi behar duzu. Hark mundu hau utzi du eta Aitenaren ondoan bizi da, zure alde egiteko. Konfiantza mantendu. Mundu honetako bidegurutzetan, ez zaitu eskutik utziko.

Igandez Ekainak 5	<ul style="list-style-type: none"> • Eginak 1,1-11 • Salmo 46 • Ef 1,17-23 • Mt 28,16-20 	Pazko VII. Igandea. <i>Jaunaren Igokundea.</i>	<i>Zuekin nago egunero, munduaren azkenera arte.</i> Ba al dago kontsolamenduz eta itxaropenez betetzen gaituen halako beste mezu egokiagorik? Eskatzen diozun eginkizuna betetzea da eman behar diozun erantzun bakarra: zoaz, eta zabaldu Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren maitasunetik datorren berri ona.
Astelehenez Ekainak 6	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 19,1-8 • Sal 67 • Jn 16,29-33 	Pazko VII. Astea astelehenez.	Bizitzaren bidegurutzetan, Jesusen hitzak egiaz gertatzen ari direla nabaritzen baduzu, galdetu zure buruari: zer ekarriko dit Jauna alde batera uzteak, bakea ez ezik, "munduari" aurre Hark egin bezala egiteko kemena ere galtzen badut?
Asteartez Ekainak 7	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 20,17-27 • Sal 67 • Jn 17,1-11a 	Pazko VII. Astea asteartez.	Jesusekin batera bizi zarela sentitzen al duzu? Haren "taldekoa" zara? Eutsi! Hartaz fio zara Aitarengandik. Berak bidaliko Jesusengan Aita ezagutzen ari zara eta bizian zaude behin betirako. Inork kendu ezingo dizun "Aintzan" zaude.
Asteazkenez Ekainak 8	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 20,28-38 • Sal 67 • Jn 17,11b-19 	Pazko VII. Astea asteazkenez.	Zure bidegurutzetan, Jesusen eta bere kausaren alde egiten baduzu, itxaropenez bete zaitez. Hark zure alde otoi egiten du, "munduan" eta bere kontrabalioren multzoan nora zoazen jakin gabe bizi ez zaitez. Hirutasunean txertaturik nahi zaitu, ez "komunikaziorako biderik gabe". Egia bizirik nahi du zukan..
Ostegunez Ekainak 9	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 22,30; 23,6-11 • Sal 15 • Jn 17,20-26 	Pazko VII. Astea ostegunez.	Maitasunaren eta biziaren misterio, hauxe da bat egiteak duen helburua bakarra: " <i>mundua sineskor egitea</i> ". Zer ekarriko dizu nabarmenkeri indibidualistak, Aitarekin, Jesusekin eta bere anaiekin lotura estua galtzen baduzu?
Ostiralez Ekainak 10	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 25,13-21 • Sal 102 • Jn 21,15-19 	Pazko VII. Astea ostiralez.	<i>Hauek baino gehiago maite al nauzu?</i> Zure iraganeko porrotek ez dute inolako garrantzirik. Gaur aukera ederra izango duzu egiaz bihotz-berritze sakon bat egiteko, neurrigabe maitatzeko, jarraibideari berriz heltzeko, Harekin lankide munduan bakea eta adiskidetasunaren alde lan egiteko
Larunbatez Ekainak 11	<ul style="list-style-type: none"> • Eg 11, 21b-26; 13, 1-3 • Sal 97 • Mt 10, 7-13 	Pazko VII. Astea larunbatez. <i>Done Bernabe Apostolua.</i> Patrioikide.	Jesusen alde egin baduzu, hauxe da zure eginkizuna: Erreinuaren gertutasunaren berri ona azaldu eta "onurazko", gizabidezko eta talde behartsuenen aldeko mundu baten zerbitzura lanean aritzea. Jainkoak egindakoa maitatuz egingo duzu zure misioa.
Igandez Ekainak 12	<ul style="list-style-type: none"> • Eginak 2,1-11 • Salmo 103 • 1Kor 12,3b-7.12-13 • Jn 20,19-23 	MENDEKOSTE Igandea.	"Ruah", har ezazu Jainkoaren arnasa eta bizi berria sortu dezala zukan. Utzi berari "gauza guztiak indarberritu ditzala". Berak garbituko dizu zure kulparen zama eta barkamena emango dizu. Zer ekarriko dizu beldurrean bizitzeak, bakearen, adiskidetasunaren eta itxaropenaren aldeko beste aukera bat galtzen baduzu?

6. Gogo sakonago batentzat

1. Mundua santutua izan bedi eta kreazioa zaindua izan bedi

(Sacramentum Caritatis, 92. zenb.)

Eukaristiaren ospakizunaren eragina gizartean ere modu berezian areagotu nahi bada, kristau-herriak Eukaristiaren bidez eskerrak ematen dituenean, kreazio guztiaren izenenean oharturik egiten duela azpimarratzea ona izango litzateke, horrekin batera mundua santifikatu eta helburu jakin horren alde lan biziagoa egiten baitu. (249) Giza historiaren eta kosmos osoaren argiaren iturri da Eukaristia. Sakramentuaren ikuspegitik egunero-egunero ikasi behar dugu elizaren ospakizun guzti-guztietan aurkitzen dugula bizi seinalea, eta, une horretan, Jainkoak bere buruarekin topo egin eta dei egiten digu etengabe. Horregatik, bizitzaren alderdi eukaristikoak barrutik eraberritzen ditu historiari eta munduari begiratzeko moduak. Liturgiak gu hazteko erantzukizuna du, eta apaiza ere horretan saiatzen da, opari-gaiak aurkeztu eta ogi-ardoak, «lurrak, mahatsak eta gizakiaren lanak sortutako fruituak» mahaian ezartzean Jainkoari bedeinkapen-otoitz bat zuzendu eta eskaria egiten dihonean. Hitz horiek bitarteko, gizakiaren lanaren eta ahaleginaren indarra Jainkoari opari bezala eskaintzeaz gain, errituak bizi arnasa ematen diguten munduko bazter guztien sortzaile Jainkoa dela ohartarazten gaitu. Kreazioa ez da besterik gabe errealitate neutral bat, eta gizakiak gogoak ematen dion bezala erabiltzeko materia hutsa ere ez. Jainkoaren asmo bihozbera hor dago, horregatik baikaude haren seme-alabak izatera deituak Jesukristo den Jainkoaren Seme Bakarrarengan (cf. *Ef* 1,4-12). Munduko leku askotako oraingo egora ekologikoak sortzen duen egiazko kezka lasai bildu daiteke kristau-itxaropenera, Elizaren alderdi horretan aurki dezakeelako kreazioaren aldeko defentsa on eta arduratsua. (250) Bai, hala da, Eukaristiaren eta unibertsoaren artean ematen den harremanean aurkitzen dugu Jainkoaren asmo onaren batasuna, eta gonbidatzen gaitu kreazioaren eta Kristo den Adan berriaren berpizkundearekin hasten den «kreazio berriaren» artean ematen den harreman sakona ikustera. Han daukagu Elizak Bataioan (cf. *Kol* 2,12 s.) ematen digun egoitza, eta gure kristau-bizitzarengan horrela adierazten da, Eukaristiaren bitartez elikatua, mundu berriaren, zeru berriaren eta

lur berriaren testigantza, eta hor ikusten dugu Jerusalem berria, zerutik, Jainkoarengandik, jaisten, «emaztegaia bere senarrarentzat bezala apaindua» (*Ap* 21,2).

2. Orain gau iluna oztopo zaidan arren

(San Joan Gurutzekoa)

Ondotxo dakit zein iturri agorrezina den, orain gau iluna oztopo zaidan arren

1. Borbor-jariozko iturri gordea, bertan nik igarria betirako sortzea, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
2. Jatorriz ez dakit, ez baitu sorbururik, baina badakit dena dela sorburuz bertako jatorri, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
3. Behin sentitutako gauza ederragorik, eta zeru-lurrek edaten dutela hango ahotik, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
4. Ez du, badakit, hartuko duen lurrik, ezta ere inork saihestuko duenik, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
5. Bere argira ez dator ilunik, eta jaioa da argi oro bere isurtzetik, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
6. Ur biziaz jantzitako iturri oparoa, infernu eta zeru eta zuen gainera jarioa, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
7. Iturri honetako ur bizkor, ahaleginez ahaltsu eta emankor, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
8. Bi horietatik datorren ur lasterrak aurrekorik ez du ez batera ez bestera, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
9. Borbor-jariozko iturri gordea, ogiaren alde dator bizia ematera, orain gau iluna oztopo zaidan arren.
10. Izan den orori egiten dio dei berezia, eta urasetzen ditu, nahiz eta ilunean ipiniak, orain gau iluna baita.
11. Bihotzez nahi dudan iturri bizia, eman didazu une honetako biziaren ogia, orain gau iluna oztopo zaidan arren.

